



Osakidetza

BILBO-BASURTUKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BILBAO-BASURTO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Bilbo-Basurtuko
Erakunde Sanitario
Integratua

2023 ko
kudeaketa-memoria

2024ko iraila



Argitaratzailea: Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua, Osakidetza
Azken eguneratzea: 2024ko iraila



Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratu da, baldintza hauekin:

- © Libreki heda daiteke
- © Lan eratorriak baimenduta daude
- 📍 Jatorrizko jabetza aitortu behar da
- 🚫 Eratorriek erabilera ez-komertzialetarako izan behar dute
- 🔄 Eratorriak parteka daitezke, baina lizentzia bera erabiltaraz

Informazio gehiago lortzeko eta lizentzia osoa ikusteko:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.eu>

AENOR
Confía**IRAUNKORTASUN TXOSTENA EGIAZTATZEA**

VMS-2023/0031

AENORek Erakunde honen txostena egiaztatu du

**OSAKIDETZA - SERVICIO VASCO DE SALUD
OSI BILBAO BASURTO**

GRI txostenak egiteko estandarren arabera egin da, eta erakundeak ekonomian, ingurumenean eta pertsonengan dituen inpaktu esanguratsuenen ikuspegi orokorra ematen du, giza eskubideei eragiten dieten inpaktuak barne, bai eta inpaktu horiek nola kudeatzen dituen ere. Egiaztapena eranskinean zehazten den prozeduraren arabera egin da, ISO/IEC 17029:2019 araua betez.

Titulu: 2022ko Kudeaketa Memoria.

Txostenaren xede den aldia: 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

jardueren kokapena: AV MONTEVIDEO ETORBIDEA, 18. 48013 - BILBO (BIZKAIA)

Jaulkipen data:2023-10-13

Rafael GARCÍA MEIRO
CEOAENOR INTERNACIONAL S.A.U.
Génova, 6. 28004 Madrid. España
Tel. 91 432 60 00.- www.aenor.com

Aurkibidea

Glosarioa	4
Aurkibidea	4
Sarrera	5
Memoriaren profila	6
Nortzuk garen	7
Erakundearen profila	7
Bilbo-Basurtuko ESla-ren zerbitzu-zorua. Programa-kontratua	13
2023 kudeaketa-plana: burututako ekintzarik garrantzitsuenak (erronka estrategikoen arabera)	16
Jarduera- eta egitura-adierazle nagusiak	18
Lortutako aitortpenak	25
Materialtasuna eta estaldura	26
Estrategiaren, inpaktuen eta prozesuen arteko korrelazioa	28
Pertsonak	32
Etengabeko prestakuntza	32
Lan-osasuna	37
Aukera-berdintasuna	38
Onura sozialak eta lana eta familia-bizitza uztartzeko neurriak	39
Ordainketa-politika	39

Bezeroak	40
Hobekuntzarekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa	40
Segurtasun klinikoak	40
I+G+Bren sustapena	41
Informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna	42
Pazientearen Segurtasuna	42
Gizartea	44
Beste erakunde eta instituzioekiko harremanak	44
Ingurumen-dimentsioa	46
Eragin sozioekonomikoa	47
Gobernu ona	48
Erakundearen gobernu-egitura	48
Kudeaketa-arloa	49
Araudia aplikatzea eta helburuak lortzea	50
Kudeaketa etikoa	51
Eranskinak	52

Glosarioa

ESK	Erantzukizun Sozial Korporatiboa
ESla	Erakunde Sanitario Integratua
GRI	Global Reporting Initiative
LMAUA	Lehen Mailako Arretako Unitatea
ETXEOSP	Etxeko ospitalizazioa
BUO	Basurtuko Unibertsitate Ospitalea
LMAUB	Lehen Mailako Arretako unitateburua
PEAZ	Paziente eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua
BBB	Bihotz-biriketako bizkorketa
BAE	Bezeroen Arreta Eremua
AE	Arreta Espezializatua
OZ	Osasun Zentroa
POU	Prebentzioko Oinarrizko Unitatea
EAG	Etengabeko Arretarako Gunea
IK	Ikerketa klinikoak
IP	Ikerketa proiektua
EGOSPM	Eguneko Ospitale medikoa
KHA	Kirurgia-handi anbulatorioa
SSKK	Saiakuntza-klinikoak
EZZU	Erreferentziako zentroak, zerbitzuak eta unitateak
PK	Programa kontratua

Sarrera

2-22

2022ko helburu garrantzitsuenetako bat etorkizuneko Bilbo-Basurtu Berria proiektua behin betiko bultzatzea izan zen. Proiektu horren helburua da ESla berrikuntzan eta irakaskuntzan erreferente jartzea, eta ESla erantzat orientazio estrategikoa eta antolamenduzkoa ematea. 2023an, besteak beste, kanpo kontsulten eraikin berria eta Boluetako osasun-zentro berria eraikitzeko proiektuak argitaratu dira. Azpiegitura horiek beharrezkoak dira, eta hobekuntza handia ekarriko dute, bai erreferentziazko herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko, bai profesionali laguntzeko.

Era berean, eta Bilbo-Basurtu Berria proiektuarekin batera, 2023an UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria eraikitzen hasi gara, Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen ondoan. Ez da ahaztu behar Ospitaleak inaugurazio beretik duela irakaskuntza eta ikerkuntza bere DNA, eta fakultate berria Ospitalearen ondoan egoteak erraztu egiten duela bi erakundeen arteko lankidetzeta eta erabilera partekatuko azpiegituren plangintza, horrela ezagutzaren trukea eta gehikuntza bermatuz eta oinarriak ezarri modu jasangarriari bermatzeko bai oraina bai etorkizuna, kalitatezko osasun-arreta, datozen erronketarako prestatua. Gure interes-taldeekin lankidetzan aritzea eta sinergiak ezartzea funtsezko faktorea da konfiantza publikoa sortzeko.

Bestalde, 2022-2025 Plan Estrategikoaren lehen urtea izan da, eta kudeaketaren ikuspegitik, kudeaketa-akordioaren aldeko apustu estrategiko oso garrantzitsua egin dugu. Kudeaketa-akordioaren helburua da ESla adostasun-dinamika eta talde-lana sustatzea, LMAU eta Zerbitzuetako arduradunen eta ESla Zuzendaritza Taldearen artean adostutako helburu komun batzuekin, eta kudeaketan kultura-aldaketa bat sortzea. Aldaketa kultural hori lortzeko, baliabideen erabilera eraginkorraren aldeko apustua egin gura dugu; izan ere, LMUen eta zerbitzuen alde egin

gura dugu, gauzatu beharreko helburuak lehenetsiz, gaitasun berriak garatuz edo lehendik zeudenak indartuz, hala zelan lidergoa, talde-lana eta komunikazioa, eta malgutasuna, autonomia eta erantzukizuna sustatuz akordioetan bertan ezarritako helburuak gauzatzeko orduan.

Esperientzia ezin positiboagoa izan da, eta etorkizunean garatzen jarraituko dugu. Eta ziur gaude kudeaketa-akordioek aukera emango digutela hainbat arlotan ditugun erronka ilusionagarriari berme handiagoz aurre egiteko; besteak beste, hobekuntza teknologikoak eta antolakuntzakoak sartzeko, herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko, segurtasun klinikoaren bermatzeko, gure profesionalak garatzeko eta berrikuntzako, ikerketako eta garapen estrategikoko gure egitura sendotzeko.



Jesus Larrañaga Garitano
Zuzendari Gerentea



Memoriaren profila

📌 2.3, 2.4, 2.5, 2.6, 2.14

10. memoria hau 2023eko urtarrilaren eta abenduaren 31 arteko aldiari dagokio, eta Bilbo-Basurtuko ESiko jarduerari buruzko informazioa jasotzen du (aurrerantzean ESla erabiliko da).

Estrategiari Laguntzeko eta Osasuneko Emaidzak Hobetzeko Unitateak egin du memoria, Zuzendaritza-taldeko kideen eta arlo zehatzetako beste arduradun batzuen laguntzarekin. Azkeneko zirriborroa bukatu ostean, zuzendari gerenteari eman zaio, ontzat eman dezan, eta, horren ostean, gure erakundetik kanpoko eta horretarako homologatutako ziurtatze-erakunde batek egiaztatu du.

Bilbo-Basurtuko ESiak, memoria honen bidez, albait erarik errazenean informatu nahi du Erakundearen eta haren jardueraren ahalik eta adierazle material gehienei buruz. Memoria egiteko, «funtsezko aukera» hautatu da, GRI estandarren arabera. Dokumentu honen eranskinean, korrespondentzia-taula dago, non adierazten baita dokumentuaren zein lekutan dagoen adierazle bakoitzari buruzko informazioa, GRI estandarren arabera.

Datuen berradierazpenak dagozkien adierazleetan daude azalduta. Edukia sinplifikatzearen, eta kontuan hartuta memoria hau urtero egiten dugula, eremu bakoitzeko ekintzak ez ezik, 2022ko eta 2023eko emaitzen arteko alderaketa ere azpimarratu dugu. Hori horrela, erabaki dugu uneko urteari eta aurreko urteari buruzko informazioa ematea, aurreko urteetako emaitzak aurreko memorietan daude eta.

Erakundearen kudeaketako eta reportingeko alderdi materialak identikatzerakoan, Bilbo-Basurtuko ESiak bere xedea eta ikuspegia era arrakastatsuan betetzeko funtsezkoak diren elementuak integratzen ditu, eta horretarako interes-talde garrantzitsuenen beharrak eta espektatibak hartzen ditu erreferentzia, batez ere Osasun Saila, Osakidetza, erabiltzaile eta profesionalenak.

“Estaldura eta materialtasuna” atalean, Bilbo-Basurtuko ESiko interes-taldeentzat garrantzi handienekoak diren alderdiak kontsultatu daitezke, zein, erakundearentzat estrategikoak izanik, bere materialtasun-arloak baitira, eta, beraz, arreta bereziaz lantzen baitira, bai kudeaketaren arloan, bai reportingean.

Elkarrizketa-prozesu horien emaitza nagusietariko batzuk txosten honetako hurrengo orrialdeetan kontsulta daitezke.

Irakurleari gonbita luzatzen diogu etorkizuneko beste edizio batzuetarako bere iritzia, iruzkinak eta hobetzeko iradokizunak bidaltzeko, helbide elektronikoaren honen bidez:

ESTRATEGIAETAOSASUNEMAITZAK.BILBOBASURTU@osakidetza.eus

Nortzuk garen



2.1, 2.6, 2.12, 2.16, 2.23, 2.26, 2.29, 3.3

Erakundearen profila

Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESla 2014ko urtarrilaren 31n sortu zen, zerbitzu-erakunde biak batzearen ondorioz, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea (BUO) eta Lehen Mailako Arretako Bilbo Eskualdea, eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publiko - Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren 23 zerbitzu-erakundeetarikoa bat da.




Bilboko eta Alonsotegiko biztanleei zerbitzuak ematen dizkie, eta, horrez gain, erreferentziako ESla da biztanle-eremu hauetan:

Helduen erreferentziako zerbitzuak eta tratamenduak

Zerbitzua	Erreferentzia-eremua
Bihotzeko Kirurgia	Araba (%50)
Elektrofisiologia	Araba (kasu konplexuak)
Laborategia	Mena Harana
Neurokirurgia: garuneko aneurisma kirurgia	EAE
Helduen psikiatria: gorrak	EAE
Helduen psikologia: gorrak	EAE
Sexo-transmisioko gaixotasunak	EAE
Esklerosi anizkoitza	EZZU
Obesitatearen kirurgia plastikoa	Araba eta Errioxa
Enteroskopia	EAE
Balbula perkutaneoak, aortikoak eta mitralak	Araba (%50)
Alergiak	Mena Harana
Hodietako kirurgia	Mena Harana
Kirurgia Orokorra	Mena Harana
Digestio-aparatu	Mena Harana
Ginekologia y tokologia	Mena Harana
Otorrinolaringologia	Mena Harana
Traumatologia	Mena Harana

Erreferentziako Umeen zerbitzuak eta tratamenduak

Zerbitzua	Erreferentzia-eremua
Ume eta gazte gorrentzako psikiatria	EAE
Ume eta gazte gorrentzako psikologia	EAE




Egoitza nagusia Basurtuko Unibertsitate Ospitalean du (Montevideo hiribidea 18), eta lantoki hauek ditu:

- Basurtuko Unibertsitate Ospitalea: 40 zerbitzu.
- Lehen mailako arretako 21 unitate (LMAU), 26 osasun-zentroan banatuta. LMAU hauetako 5etan, ospitaleko arretako zenbait zerbitzu ere ematen dira.
- Urbi Basauriko espetxea.
- Etengabeko arretarako 4 gune (Deustuko, Errekaldeko, Begoñako eta Indautxuko osasun-zentroak).
- Call center bat.

1 figurako ortoargazkiak Bilbo-Basurtuko ESiko lantokien kokalekua erakusten du.

1. irudia - Bilbo-Basurtuko ESaren zentroen ortoargazkia



ESlaren misioa, ikuspegia eta balioak, 2022-2025 aldi estrategikorako:

Misioa

Osakidetzako erakunde sanitario publikoetako bat gara, Lehen Mailako Arretako eta Ospitaleko arretako zerbitzu integratuak eskaintzen dituena, osasuna sustatzeko eta zaintzeko, bai eta gaixotasunak prebenitzeko, hobetzeko eta sendatzeko ere. Gure identitatearen bereizgarri nagusiak dira arretaren kalitatea, ikerketarekiko eta irakaskuntzarekiko konpromisoa eta profesional bikainen prestakuntza.

Ikuspegia

Nahi dugu herritarrengan sortzen duen konfiantzagatik aitortua izatea, eremu hauetan erreferente:


- Gure asistentziaren humanizazioa, segurtasuna eta pertsonalizazioa
- Emaizak hobetzea, osasunari dagokionez.
- Gure zerbitzuen irisgarritasuna, arintasuna eta eraginkortasuna.
- Osasun komunitarioaren eta eremu soziosanitarioaren garapena

Balioak

- efizientzia
- errespetua
- gizatasuna
- profesionaltasuna
- talde-lana
- enpatia
- zerbitzuaren kalitatea

ESlak lehen mailako arretari eta ospitaleko arretari lotutako jarduerak garatzen ditu. Jarduera horiek 2. irudian agertzen den prozesuen mapan islatzen dira, oro har. Prozesu bakoitzak nagusi bat du, eta nagusi horrek bere gain hartzen du prozesu bakoitzaren kudeaketaren erantzukizuna. 3. irudian (hurrengo orrialdea) agertzen dira Bilbo-Basurtuko ESko interes-taldeak, horietako bakoitzaren beharrak eta itxaropenak eta 2023ean erabilitako informazio-iturriak. Interes-taldeak identifikatzeko oinarria Erakundearen helburu estrategikoak dira eta orobat berak garatzeko eta ezartzeko behar diren ekintzak.

2. irudia - ESlaren prozesuen-mapa



 3. irudia: ESlaren interes-taldeak

Interes-taldea	Beharrianak/Espektatibak	2023an erabilitako informazio-iturriak	Arduraduna	Maiztasuna
Erabiltzaileak/Pazienteak	<ul style="list-style-type: none"> Lege-eskakizunak betetzea Segurtasuna Irisgarritasuna Eraginkortasuna Lanbide-gaitasuna Gogobetetasuna Tratua Azpiegitura egokiak Informazioa eta konfidentzialtasuna Parte-hartzea Mailen arteko koordinazioa Zerbitzu-zorroa zabaltea/hobetzea 	Bezeroen gogobetetasun-inkestak	Zuzendaritza-taldea eta talde teknikoa	Urtero
		Bezeroekin kontaktu zuzena eta etengabea duten profesionalak (ez-adostasunak eta gorabeherak)	ESlako profesionalak	Jarraitua
		Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak	ESlako liderrak – PEAZ / Osasun zentroetako bezeroarentzako arreta-eremuak	Jarraitua
Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> Osasuna hobetzea Konfiantza sortzea Berrikuntza Jasangarritasuna 	Etengabeko harremanak	Profesional guztientzat	Jarraitua
		Sare sozialak	Komunikazio Unitatea	Jarraitua
		Komunikabideak	Komunikazio Unitatea/Zuzendaritza Taldea	Jarraitua
		Materialtasun-inkesta	Zuzendaritza-taldea eta KIKBIU	Aldi estrategikoa hastean
Pertsonak/sindikatuak	<ul style="list-style-type: none"> Profesionalaren gogobetetasuna Energia eraginkortasuna Euskara Kualifikazioa Lanbide-garapena Komunikazioa Laneko baldintzak eta giroa Ordainsaria Aitorpena Parte-hartzea Laneko Segurtasuna eta Osasuna Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa Prestakuntza eta informazioa 	Liderren eta langileen arteko etengabeko harremana: Zuzendaritza Taldearen irisgarritasun erabatekoa	ESlako liderrak	Jarraitua
		Iradokizunak egiteko sistema	Langileen Zuzendaritza	Jarraitua
		Segurtasun eta Osasun Batzordea	Langileen Zuzendaritza	Hiru hilean behin
		Zuzendaritza Taldearen eta langileen ordezkarien arteko bilerak	Zuzendaritza Taldea	Aldian behin
		Batzordeak eta lantaldeak	ESlako liderrak	Aldian behin
		Prestakuntza-beharren gogobetetasun-inkestak, Jakinsarea, prestakuntza-beharrak identifikatzeko inkestak	ESlako Prestakuntza Unitatea	Aldian behin
Gizarte-eragileak (GKEak, kaltetuen elkarteak, auzo-elkarteak, egoitzak etab.)	<ul style="list-style-type: none"> Elkarlana Parte-hartzea Komunikazioa Jarraitutasun asistentziala ESlaren zerbitzu-zorroa 	Koordinazio-bilerak, proiektuak gauzatzeko eta akordioak ezartzeko	ESlako liderrak	Aldian behin
		Elkarlanean parte hartzea	ESlako liderrak	Aldian behin
		Proiektuak garatzeko eta akordioak ezartzeko koordinazio bilerak	Liderrak	Aldian behin

Interes-taldea	Beharrianak/Espektatibak	2023an erabilitako informazio-iturriak	Arduraduna	Maiztasuna
Instituzionalak (udalak eta foru-aldundia)	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazio soziosanitarioa Lankidetzak 	Koordinazio-bilerak	ESiko liderrak	Aldian behin
	<ul style="list-style-type: none"> Osasunaren ikuspegi orokorra Hondakinen kudeaketa 	Elkarlaneko taldeetan parte hartzea	ESiko liderrak	Aldian behin
	<ul style="list-style-type: none"> Eraginkortasun energetikoa (mugikortasuna) 	Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea	ESiko liderrak eta profesionalak	Aldian behin
Hornitzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazioa Ekitatea Goiz-ordainketa 	Kontaktua hornitzaileekin Ate irekien politika	Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza, Zuzendaritza Taldea eta beste lider batzuk	Urtero
	<ul style="list-style-type: none"> Hornidurek beharrezko aurrerapenarekin behar dituzten eskaera jarraituak eta argiak Informazioa 	Lehiaketak eta esleipen publikoak	Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza	Aldian behin
Osasun Saila eta haren mendeko organismoak (BIOEF, Osteba...)	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren osasuna hobetzea Osasun-arloko desberdintasun sozialak murriztea Oreka finantzarioa Programa-kontratua betetzea Zerbitzu sanitarioaren estaldura Legeak betetzea Farmakoen kudeaketa Hondakinak kudeatzea 	Osasun Sailaren dokumentu estrategikoak: Osasun Plana, Plan Estrategiko Soziosanitarioa, Programa-kontratua, lege-araudia, gidalerroak, programa berriak...	Zuzendaritza Taldea eta talde eta proiektuen arduradunak:	Aldian behin
		Zuzendaritza Taldearen eta Osasun Sailaren arteko bilerak, estrategia zehatzak koordinatzeko	Zuzendaritza Taldea	Aldian behin
Osakidetzak	<ul style="list-style-type: none"> Estrategiak eta helburuak betetzea Oreka finantzarioa Zerbitzu-zorroa eta kudeaketa-sistema berritzea eta hobetzea 	Entearen dokumentu estrategikoak Plan estrategikoa, kalitate-plana, jarraibideak, gidalerroak	Zuzendaritza Taldea	Jarraitua
	<ul style="list-style-type: none"> Efizientzia Kalitate zientifiko-teknikoa Markaren irudia 	Kudeaketa kontrolatzeko bilerak	Zuzendaritza Taldea	Lauhilekoa
	<ul style="list-style-type: none"> Sistema sanitario prestigiosua Kudeaketa kontrolatzeko bilerak 	ESiko liderrek eta profesionalen plan eta estrategia korporatiboetan parte-hartzea	ESiko liderrak	Aldian behin
		Zuzendaritza Taldeen bilerak	Zuzendaritza Taldea	Lauhilekoa
Beste zerbitzu-erakunde batzuk	<ul style="list-style-type: none"> Prozesu klinikoaren jarraitutasuna 	Lider eta profesionalen arteko etengabeko kontaktua	ESiko liderrak eta profesionalak	Jarraitua
	<ul style="list-style-type: none"> Beste zentro batzuetara egindako bideratzeak 	Batzordeak eta lantaldeak		Aldian behin
	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea 	Urteko memoriak	Zuzendaritza Taldea	Urtero

Interes-taldea	Beharrianak/Espektatibak	2023an erabilitako informazio-iturriak	Arduraduna	Maiztasuna
Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundeak (IVAP, IHOBE, Emakunde, Osalan...)	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazioa Lankidetzak Komunikazioa 	Akordio instituzionalak	ESlko liderrak eta proiektuen arduradunak	Ad-Hoc
		Batzordeak eta lantaldeak	ESlko liderrak eta profesionalak	Aldian behin
		Kontaktuzuzena	ESlko liderrak	Jarraitua
		Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea	ESlko liderrak eta profesionalak	Jarraitua
Zientzia-elkarteak eta ezagutza zabaltzeko elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea Elkarlana 	Kontaktuzuzena	ESlko liderrak eta profesionalak	Jarraitua
		Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea	ESlko liderrak eta profesionalak	Jarraitua
Elkargo profesionalak (medikuak eta erizainak)	<ul style="list-style-type: none"> Elkargokideen eskubide eta interes profesionalak ordezkatzeko eta defendatzea Lanbideen jarduna antolatzea 	Zuzendaritza Taldearen eta Osasun Saileko/Osakidetzako arduradunen arteko bilerak	Zuzendaritza Taldea	Ad-hoc
Komunikabideak (irratia, telebista, prentsa idatzia...)	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzak Koordinazioa Informazioaren eskuragarritasuna 	Etengabeko harremanak	Komunikazio Unitatea/Zuzendaritza Taldea	Jarraitua
Enpresa-ehuna	<ul style="list-style-type: none"> Berrikuntza Elkarlana Esperientziak eta ezagutzak partekatzea 	Kontaktuzuzena	ESlko liderrak	Ad- hoc
		Foro eta biltzarretara joatea	ESlko liderrak	Ad- hoc
		Proiektuetan parte hartzea	ESlko liderrak	Ad- hoc
Kudeaketa-erakundeak eta aholkularitza-enpresak	<ul style="list-style-type: none"> Ziurtatu/ebalatu daitezkeen kudeaketa-sistemen betekizunak betetzea Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea Helburu bateratueterako koordinazioa 	Foro eta biltzarretara joatea	ESlko liderrak	Aldian behin
			ESlko liderrak	
Unibertsitatea: <ul style="list-style-type: none"> EHU Deustu Mondragon 	<ul style="list-style-type: none"> Elkarlana Parte-hartzea Lan-munduan sartzeko prestakuntza 	Bilerak		
		Osasun-prestakuntza espezializatuaren irakaskuntza unitatea eta Erizaintzaren irakaskuntza eta ikerketa unitatea	ESlko Zuzendaritza Taldeko liderrak	Aldian behin
Ikastetxeak Irakaskuntza Ertaineko Institutuak Ikastolak	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzak Komunikazioa eta zabalkundea Lanbide sanitarioetarako erakarpina sortzea 	DBHko 4.mailako eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei zuzendutako Ate irekietako I jardunaldia		
		Gogobetetze-inkestak	Estrategian laguntzeko eta osasun-emaizak hobetzeko unitatea	Urtero

Bilbo-Basurtuko ESla-ren zerbitzu-zorroa. Programa-kontratua

3.3

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun-zerbitzuak Bilbo-Basurtuko ESla zerbitzu-zorroan azaltzen dira. Zorro hori urtero berraztertu, berretsi eta, hala badagokio, hobetu egiten da, Programa-kontratuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin sinatzearekin bat. Bertan zehazten da zer konpromiso hartzen duen gure ESla bere arretapeko herritarrei zerbitzuak emateari buruz eta zerbitzu horiek izan beharreko kalitate-mailak. Horren truke, behar duen finantzaketa emango dio Osasun Sailak. Ondoren, kalitate-adierazleen eskuliburu batean oinarritutako ebaluazio-prozesu baten bidez, aurretik itundutako konpromisoen betetze-maila aztertu eta egiaztatzen da, eta aurrekontua doitu, beharrezkoa izanez gero.



Zer da PKA?

Osasun-zerbitzuen **finantzatzaile** eta eroslearen (Osasun Saila) eta zerbitzu **hornitzailearen** (Osakidetza erakundeak) arteko tresna juridikoa

Konpromiso horiek guztiak ESla-ren zerbitzu-zorroari lotuta daude, eta honela laburbil daitezke:

Lehen Mailako Arretako Unitateek (LMAU) bere osasun-zentroen sarean eta etengabeko arretako gunetan (EAG) ematen dituzten osasun-zerbitzuak.

- Gaixo akutu eta kronikoen asistentzia eta jarraipena, hala osasun-zentroan nola etxean.
- Osasunaren prebentzioa, sustapena eta heziketa.
- Arreta haurdunaldian, ama izateko prestaketan eta erditu ostean.
- Aho-hortzen osasuna.
- Premia sanitario urgente edo atzeraezinen arreta, hala zentroan zelan etxean.
- Alta osteko erizaintzako zainketen jarraitutasuna, zentroan eta etxean.

Ospitaleko arretaren egituraren bidez ematen diren zerbitzu sanitarioak

- Hainbat espezialitate medikotako kanpo-kontsultak, bai Basurtuko Unibertsitate Ospitalean bai zentro ambulatorioen sarearen bidez.
- Ohiko ospitalizazioa hainbat espezialitate medikotan (679 ohe guztira).
- Ospitaleko Larrialdiak.
- Eguneko ospitalizazioa.
- Etxeko ospitalizazioa Bilbo eta Alonsotegi udalerrietzat.
- Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak, bai medikoak bai kirurgikoak, hainbat zerbitzu orokor klinikotan.
- Erreferentziako zerbitzu klinikoak hainbat espezialitetan, beste lurralde batzuetako helduak eta umeak artatzeko (gure erreferentziako herritarrez gainera), baita tratamenduei eta azterlanei dagokienean ere.
- Errehabilitazioko zerbitzuak.
- Osasun mentalaren arreta.

Bezeroen Arreta Eremuko Zerbitzuak

- Harrera eta informazioa
- Hitzordua ematea
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioei arreta ematea.
- Beste izapide administratibo batzuk.

Gizarte-laguntza

- Esku-hartze sozial prebentiboa eta zuzentzailea arrisku-egoeretan.
- Koordinazio soziosanitarioa.

Gradu aurreko eta gradu osteko irakaskuntza hainbat espezialitate sanitarioetan

- Erizaintzako Unibertsitate Eskola.
- Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea.
- Farmazia Fakultatea.
- Lanbide heziketako eskolak.

Profesionalen prestakuntza hainbat espezialitetan:

- Medikuntza.
- Farmazia.
- Psikologia.
- Erizaintza.

Ikerkuntza kliniko-epidemiologikoa

Lortutako emaitzak

2023. urteko Programa Kontratuak jarraipen-ildoari eutsi dio 2022. urtearekiko, ebaluatu beharreko helburuei dagokienez, II. eranskinean zehaztuta. Helburu horiek 6 gai-multzoz handitan biltzen dira oraindik ere, eta horiek egituratzen dituzte 2023ko Kontratu Programaren II. Eranskina osatu duten 76 helburuak eta adierazleak (2022an 74 helburu izan ziren).

Logikoa denez, II. eranskin hau 1. mailako informazio-iturria da, eta ESla-ren estrategia osoa modulatzeko eta baldintzatzen du, neurri handi batean. Hasteko, ESla-ren 2022-25eko Plan Estrategikoarekin hasten da, bai eta urteko kudeaketa-planekin ere, bai ESI osoari dagokionez, bai LMUen eta zerbitzuen planei dagokienez, urteko kudeaketa-akordio bidez.

Kontratu Programaren II. eranskinak herritarrei zerbitzuak emateko bete behar diren betekizunei buruz duen eragin eta agindu horrek baldintzatu egiten du Osasun Sailak emandako finantzaketa-maila, ikuspegia dela ezen ESla-ren emaitzak zenbat eta hobeak izan, orduan eta finantzazio handiagoa lortzen duela..

Hurrengo taulan, Programa Kontratuaren II. eranskineko 6 bloke tematiko handietan lortutako balioa azaltzen da, bai 2022an, bai 2023an.

Neurtutako blokea	2022ko puntuak	2023ko puntuak	Puntuak gehienez
Bloke orokorra	15,63	25,59	30
Segurtasun klinikoaren blokea	10,52	10,76	15
Praktika klinikoaren egokitzapenaren blokea	3,50	4,24	7
Zainketa aringarrien blokea	2,60	5,35	10
Minari heltzearen blokea	7,72	7,72	8
Patologia askotariko, kronikotasun eta mendekotasunaren blokea	9,24	7,54	15
Erakusleen eskuliburuaren arabera lortutako puntuak	49,21	61,21	85
Proiektu berritzaileak hedatzeagatik lortutako puntuazioa (Bottom Up)	8,83	8,10	12
Osasun-proiektuak hedatzeagatik lortutako puntuazioa (Top Down)			3
Puntuazioa guztira	61,04	72,31	100

*Paziente pluripatologikoak

II. eranskin osoaren azken emaitzak gorakada nabarmena izan du 2022an lortutako balioarekin alderatuta, bereziki "orokorra" izeneko blokean. Bloke horri lotuta ESla 2023an egindako hobekuntzetako batzuk, dagokion aurrerapenean lagundu dutenak, hauek izan dira:


Programa-kontratuaren II. eranskinaren helburua (bloke orokorra)	2022ko puntuen %a	2023ko puntuen %a	Ekarpena egiten duten faktoreak
Lehen mailako arretako erizaintzako profesionalen protagonismoa areagotzea prozesu arin autolimatuak (PAA) heltzean	0	100	<ul style="list-style-type: none"> Estrategia berriz hedatzea LMAU guztietan PLAri buruzko protokoloak eguneratzea LMAU guztiak 1. mailako Aginte Taularen adierazletzat sartzea Prestakuntzako barne-saioak LMAUetan
Lehen mailako arretako erizaintzako profesionalen protagonismoa areagotzea sendagaien eta osasun-materialaren indikazioan	1	21	<ul style="list-style-type: none"> Estrategia berriz hedatzea LMAU guztietan Protokoloak eguneratzea Prestakuntzako barne-saioak LMAUetan
Aldez aurretik ospitalizatutako pazienteari alta eman eta gero, 30 egunetan ospitaleratze baimen tasa murriztea.	0	100	<ul style="list-style-type: none"> Ospitale-arretaren eta lehen mailako arretaren artean alta ematean jarraitutasun integratu hobea izateko estrategiak

Hala ere, logikoa denez, 2023ko ebaluazio-txostenean jasotako hobekuntza-arloak daude, eta Bilbo-Basurtuko ESla horietan esku hartzen ari da dagoeneko. Taula honetan horri buruzko estrategia garrantzitsuenetako batzuk ageri dira:

Programa-kontratuaren II. eranskinaren helburua (bloke orokorra)	2023ko puntuen %a	Proposatutako hobekuntza-estrategiak, 2024an landuak
Gernu-infekzioak gutxitzea ospitalizatutako pazienteetan, gernu-katerrarekin lotuta	%19,8	Erizaintzako profesionalentzako prestakuntza-programa (2024-2025 urteak), gernu-zundaketaren beharra gutxitzea ahalbidetuko duten ekografo eramangarriak erabiltzeko.
Sarbide baskularreko gailuen ondoriozko konplikazioak gutxitzea	%0	Ospitalizatutako pazienteak artatzen dituzten ospitale-zerbitzuak 2024ko kudeaketa-akordioetan helburu espezifikotzat sartzea
HKEE bi edo gehiagoren (hanturaren aurkako sendagai ez-esteroideoak) erabilera simultanea murriztea	%25	LMAUen 2024ko Kudeaketa Akordioetan Berariazko helburuen artean sartzea, baldin unitate horien emaitzak hobetu badaitezke.
Zainketa aringarriak behar dituzten pazienteen identifikazioa eta erregistro egokia areagotzea	%44	INNOPAL estrategiaren hedapena helburu espezifikoen artean sartzea ospitale-zerbitzu kirurgikoen 2024ko Kudeaketa Akordioetan. ESlko Zainketa Aringarrien Batzordearen protagonismo indartua, dimentsio horretako estrategiak planifikatu eta hedatzeko
Identifikazioa handitzea, erregistro eta jarraipen egokia egitea Arreta Plan Indibidualizatuaren bidez paziente pluripatologikoengan	%0	Berariazko helburuen artean sartzea LMAU guztien 2024ko Kudeaketa Akordioetan
PU (presio-ultzerak) arriskua duten etxeko paziente kronikoen gutxienez 6 hilean behingo balorazioaren ehuneko handitzea	%0	Berariazko helburuen artean sartzea LMAU guztien 2024ko Kudeaketa Akordioetan
Diabetesa diagnostikatu zaien eta arteria-tentsioa ondo kontrolatuta daukaten pazienteen tasa handitzea (140/90etik beherako zifrak)	%0	Berariazko helburuen artean sartzea LMAU guztien 2024ko Kudeaketa Akordioetan
Arteria-hipertentsioa diagnostikatu zaien eta tentsio arteriala kontrolatuta daukaten zifrak pazienteen tasa handitzea (140/90etik beherako zifrak)	%45	Berariazko helburuen artean sartzea LMAU guztien 2024ko Kudeaketa Akordioetan

Ikus daitekeenez, kudeaketa-akordioak (ESlko Zuzendaritzak ospitale-zerbitzu bakoitzarekin eta LMAU bakoitzarekin sinatuak) funtsezko tresnak dira hobekuntza-prozesu honetan, horien bidez ezartzen baitira dagozkion helburuak, eta LMAUK edo zerbitzuak konpromisoa hartzen baitu horiek lortzeko ekintzak garatzeko (adibidez, saio klinikoak, sensibilizazio-saioak, emaitzen balorazio bateratua eta aldizkakoa, eguneratzea eta hedapena).

Bottom Up proiektuak eta Top Down proiektuak ere kontrastatu ziren 2023an, gure programa-kontratuaren II. eranskinaren esparruan. Azken horiek Osasun Sailak berak proposatzen ditu, ESl guztietan modu eraginkorrean hedatzeko; Bottom Up proiektuak, berriz, laguntza-ekimen berritzaileak dira, eta ESletako profesionalak proposatuta sortzen dira.



Ondorengo taulan, aipatutako proiektuen 2023ko ebaluazioaren laburpena ikus daiteke:

Proiektuaren izena	Proiektu mota	Lor daitezkeen gehieneko puntuak	Azken balioa
Long Covid pazienteak artatzeko asistentzia-zirkuitua ezartzea	Bottom Up		0,75
PREGAP-Prebentziorako Gazte-Programa. Psikosian-Gazteen artean psikosia prebenitzeko programa	Bottom Up	2	1,40
Tratamendu farmakologikoa egokitzea Bilbo-Basurtuko ESleri lotutako sendagai-biltegiak dituzten zentro soziosanitarioetako erabiltzaile hiperpolimedikatueta (>10 sendagai kroniko)	Bottom Up	2	0,95
Bihotz-biriketako komunitate-mailan (Arrigorriagako udalerria) bizkortzea	Bottom Up	2	2,00
Tiroida-patologia nodularren bereizmen handiko bide klinikoak	Bottom Up	2	1,55
GIB infekzioaren diagnostiko berantiarra gutxitzea	Bottom Up	2	1,45
Zainketa aringarriak behar dituen pazientearen eten bako arreta, egoera ezegonkorrean	Top Down	3	3
Azken puntuazioa		15	11,1

Azkenik, azpimarratu behar da 2023ko azken lauhilekoan, eta Osasun Sailak Bottom Up proiektuak aurkezteko urtero egiten duen deialdia oinarritzat hartuta, ESlak barne-deialdi berritzaile bat egin duela lehen aldiz. Deialdi horren helburu nagusia da gure profesionalen artean sustatzea ekimen berritzaileak eta hobekuntzakoak proposatu, gidatu eta abian jar ditzaten. Estrategia hori "Berrikuntzaren kultura indartzea" gure Plan Estrategikoaren 6.2 helburuarekin loturaturik dago, eta emaitza bikaina izan du, 14 Bottom Up proiektu posible aurkeztu direlako 2024ko deialdirako (nahiz eta Osasun Sailak gehienez 8 proiektu onartu dituen ebaluatzeko).

2023 kudeaketa-plana: burututako ekintzarik garrantzitsuenak (erronka estrategikoen arabera)

📌 2.25, 3.3

Laburbilduta, 2023an amaitu edo hasi diren estrategia nagusietako batzuk aurkezten dira, Plan Estrategikoa 2022-2025-ren 7 erronken arabera egituratuta. ESiko Zuzendaritza Taldeak onartu ditu estrategia horiek, eta memorian azaltzen diren beste estrategia batzuekin osatzen dira.

1. Erronka. Pazientearentzako eta pazientearekiko asistentzia

- Patologia askotariko pazienteen, BGBK, diabetes mellitus eta bihotz-gutxiegitasuna dutenen asistentziabideak eguneratzea.
- Pilotatzea Covid Iraunkorreko Unitate iraunkorrerako loturazko erizaina.
- IKTak sustatzea: Kontsulta ez-presentziala, sinadura biometrikoa, historia partekatua, tableten erabilera...
- Bultzatu panel klinikoaren erabilera.
- Oin Diabetikoaren Unitatea indartzea. Oin diabetikoko diziiplina askotariko kontsulta zabaltzeko azterketa.
- KIRUTRACK sistema gauzatzea.
- Osasun-zentroetako administrazio-eremuak birmoldatzea, asistentzia-eredua aldatuta (mostradoreetatik arreta-mahaietara, eredu korporatiboaren arabera)
- Inguruneko zarata txikitzeko neurriak (medikamentueta sendaketa-organ azterketa).

- ESlaren Humanizazioko Batzordea abiaraztea.
- Zainketen plangintza hobetzeko programari berrekitea.
- Ospitalizazioko unitate guztietan Zero Flebitis (ZF) proiektua gauzatzea.
- TAO autokontrola bultzatzea.
- Osasun-karpetaren edukia eta funtzionaltasuna pazienteen eta profesionalen artean zabaltzea.
- Pazienteen eta senideen eskola hedatzea.
- Prozesu arinetarako autozaintza-jarraitbideak ematea.
- Tiroideo noduluaren bereizmen handiko kontsulta ezartzea.
- Logurako kontsulta-zirkuitua hobetzea.

2. erronka. komunitate-osasuna

- Fisioterapia lehen mailako arretan: hedatzen jarraitzea.
- FarmaMIR LA proiektua medikuntza familiar eta komunitarioko R4 irakasle-kupo guztietara zabaltzea.
- Amaitu gatekeeper proiektua.
- Esku-hartze berriak gauzatzea, medikazio-erroreak edo desegokitasun-arazo litezkeenak (DAL) albait gehien gutxitzeko (protokolo korporatiboekin bat).
- Haurdunaldian aho-haginen osasunaren arreta abiaraztea.
- Egoitzekiko koordinazioa hobetzea.
- Jauziak prebenitzeko tailerrei berriro ekitea.
- Erizain komunitarioak hedatzea eta gauzatzea.
- Paziente aktiboaren programak bultzatzea: minbiziaren, gaixotasun kroniko sarrien, baztertuta geratzeko arriskuan dauden populazioen arloan.

- ESlaren osasun komunitarioko sarea sortzea.
- Gaixotasun Infekziosoen Zerbitzua buru izango duen diziiplina anitzeko STI Unitatearen sorrera bultzatzea.

3. erronka. Arretaren efizientzia eta eraginkortasuna

- Ospitalizaturiko pazienteen alta-prozesua hobetzea.
- Neurokirurgiako Zerbitzuan programazio kirurgiko urgentearen zirkuitua berrikustea.
- LMAN eskaria kudeatzeko estrategia (Prozesu arin Automugatuak bultzatzea, etab.) garatzea.
- Farmazia-preskripzioa hobetzeko ekintzak bultzatzea.

4. erronka. pertsona inplikatuak eta gai direnak

- ESiko pertsonen lanbide-trebetasunen mapa definitzea.
- Txandakatzeko eta diziplina askotariko eta maila arteko saio klinikoaren mapa egitea: Motibazioen inkesta.
- LMAUetan zaurien lanerako erreferente berriak eguneratzea eta gaitzea.
- ESiko pertsonen arteko elkarguneak (jardunaldiak, ekitaldiak, etab.) bultzatzea.
- Giza baliabideak kudeatzeko tresna korporatiboak hedatzea.
- Barne-komunikazioko plataforma berria garatzea
- Trebetasun sozialei eta kultura emozionalari buruzko taldeko eta komunitateko esku-hartzeak, emozioak eta estresa maneiatzen ikasteko.
- Pertsonak arrisku psikosozialen aurrean babesteko erak hobetzea.

5. erronka. Ingurunearekin eta modernizazioarekin konprometituak

- BBB proiektua: Kanpo Kontsulten eraikin berria eraikitzeko proiektuaren argitalpena
- Jaio Berrien Unitatea berritzea
- Boluetako osasun-zentroaren eraikin berriaren proiektua.
- Kardiologiako plan funtzionala (2. gela hemodinamikoa).
- Hobekuntza-obra egitea: Allendeko sotoa, Centro de Salud de Txurdinagako osasun-zentroa
- Hondakinen bereizketa hobetzea, jatorrian minimizatzea, haien balorizazioa sustatzea (suntsitzera doazen azken

hondakinen gutxiago sortzea eta arriskugarritasuna txikitzea). a la eliminación).

- Gure ingurumen-politika interes-talde guztiei hobeto zabaltzea.

6. erronka. I+G+b eta irakaskuntza etorkizuna bermatzeko

- Saiakuntza klinikoaren erizaina ezartzea ESlan,
- Biocruces Bizkaiarekin lankidetzan
- Bibaknow-ekin jarraitzea eta hainbat elkargune antolatzea.
- I+G+b arloko prestakuntza-ikastaroak ezartzea irakasleentzat, egoiliarrentzat eta tutoreentzat.
- ESlan Bottom Up proiektuak detektatzeko eta abian jartzeko deialdia diseinatzea eta martxan jartzea.
- ESlaren barruan berrikuntza-kultura sustatuko duten hainbat elkargune planifikatzea eta garatzea. Adibidez, showroom teknologikoa euskal enprekin lankidetzan, hainbat ekimen, hala zelan gosari teknologikoak, world cafe, etab.
- Jardunbide egokiei buruzko proiektuak eta ikerketaildoak bultzatzea.
- Arlo espezifikoetan profesionalen prestakuntza teorikopraktikoa sustatzea eta erraztea.
- ESla irakaskuntza-erakunde gisa duen proiektzioa bultzatzea.

7. erronka. gobernu ona, balio bereizgarri

- Zerbitzu kirurgikoen % 100eko hedapena amaitzea.
- Osabide Globalen hedapena amaitzea.
- Kudeaketa-akordioak hedatzea LMAUn, zerbitzu klinikoetan eta zerbitzu ez-kirurgikoetan.
- Inkestagune garatzea, inkestak egiteko tresna denez.
- Hizkuntza-normalizazioa sustatzea pr.

Jarduera- eta egitura- adierazle nagusiak

Jarraian, zenbait magnitude eta emaitza modu orokorrean azalduko dira, Bilbo-Basurtuko ESla-aren irudia emateko:

📌 2.6, 2.7, 2.8, 2.25, 2.26, 201-1, 201-4, 3.3

📌 Ekonomia eta Finantza arloa

Emaitza-kontua	2023	2022	Δ 23/22
Diru-sarrerak	530.166.928	519.522.942	10.643.986
Jatorri publikoko dirulaguntzak eta laguntzak	265.120	234.833	30.287
Sektore pribatutik heldutako ikerkuntza eta prestakuntzarako laguntzak	0	0	0
Gastuak	530.166.928	519.522.942	10.643.986
Hornitzaileak (negozio bolumena) (1)	172.086.771	169.669.265	2.417.505
Soldata (2)	280.996.113	270.824.062	10.172.052
Prestazio sozialak	6.433.735	6.383.944	49.791
Zergak (gizarte-asegururak)	79.336.137	74.849.412	4.486.725
Galera (-) / irabazia (+)	0	0	0

(1) Urteko fakturak.

(2) Bere baitan hartzen ditu soldata, ordain-sariak, kalte-ordainak eta irakaskuntza

(3) Bere baitan hartzen ditu gizarte-ekintza, pentsiodunak, EPSV Itzari eta beste kontzeptu batzuk

Jarduera asistentzialaren datuak

📌 Asistentzia arloa (2023-2022)

Adierazlea	2023	2022	%
Ospitaleko kontsultak	857.181	852.919	%0,50
Larrialdiak	141.981	143.050	%-0,75
Ingresuak	38.435	38.554	%-0,31
Ebakuntzak	46.279	46.687	%-0,87
Altak	38.398	38.505	%-0,28
Lehen mailako arretako kontsultak	2.625.903	2.962.959	%-11,38
Lehen mailako arretako larrialdiak	110.707	89.749	%23,35
Oheak	629	635	%-0,94
Batez besteko egonaldia	4,43	4,66	%-4,94
Ospitalearen batez besteko egonaldia	74,28	75,63	%-1,79
Itxaron-zerrenda kirurgikoan (IZK) zain egondako egunak	67,96	78,45	%-13,37
Kanpoko-kontsulten itxaron-zerrendan zain egondako egunak (KK IZ)	81,20	63,04	%28,81
ETXEOSP-en altak	2.310	2.246	%2,85
ETXEOSP-en batez besteko egonaldia	11,69	13,06	%-10,49
ETXEOSP -en etxeko bisitak	14.360	16.096	%-10,79

Informazio-iturria: Aginte-mahai korporatiboa.

Oheak: Benetako oheen urteko batez besteko kopurua. Ez dira zerbitzu bakoitzari esleitutako ohe teorikoak.

Okupazio-indizea: Ospitaleko batez besteko okupazioa da, benetako ohe kopurua kontuan hartuta.

Interbentzioak: Adierazle honek hauek hartzen ditu kontuan:

- Kirurgia handi programatuko interbentzioak (PAO + PAL + PALE)
- Kirurgia handi urgenteko interbentzioak (UAO + UAL + UALE)
- Kirurgia txikia, bloke kirurgikoa
- Kirurgia txikia, Jarduera Eskaeren Kudeaketa

• Aurreikusitako gabeko interbentzioak

KK, guztira: Kontsulta medikoak guztira (ospitale barrukoak eta kanpokoak), lehenengoak + hurrengoak + ez-presentzialak.

KHIZren batez besteko atzerapena: Zenbat batez besteko denbora egon diren zain abenduaren 12/31n kirurgia handiko itxaron-zerrendan dauden interbentzioak.

KKIZen batez besteko atzerapena: Zenbat batez besteko denbora egon beharko duten zain abenduaren 12/31n itxaron-zerrendan dauden lehenengo kontsultak.

Lehen Mailako Arretako kontsultak: Adierazle honetan kontuan hartzen dira kontsulta presentzialak, telefonikoak eta etxeko bisitak, bai familia medikuntzakoak, pediatriakoak, erizaintzakoak eta emagintzakoak.

Lehen mailako arretako larrialdiak: Kontuan hartzen dira medikuntzako eta erizaintzako kontsulta presentzialak.



Lehen Mailako Arretako lehentasunezko eskaintzaren emaitzak

Eremua	Itema	Adierazlea betetzen dutenak (%)	Puntuak
1. totala Minbizia		25,60	30,58
1. Minbizia	11 Tabakismoa	29,80	28,41
	12 Zerbixeko minbizia	4,61	2,17
2. totala Kardiobaskularra		37,69	48,04
2. Kardiobaskularra	21 Arrisku kardiobaskularra	19,04	10,31
	22 Hipertentsio arteriala	45,46	37,25
	23 Obesitatea	35,62	0,48
3. totala Diabetes mellitusa		40,37	36,81
3. Diabetes mellitusa	31 Diabetesaren kontrola eta tratamendua	40,37	36,81
4. totala Osasun mentala eta drogen abusua		20,90	20,81
4. Osasun mentala eta drogen abusua	41 Alkoholaren abusua	35,62	3,44
	42 Depresioa	1,18	2,97
	44 Dementzia	16,03	14,39
5. totala Gaixotasun kutsakorak		25,78	11,34
5. Gaixotasun kutsakorak	52 Tetanosaren eta difteriaren txertaketa	25,78	11,34
6. totala Umearen arreta		51,89	90,33
6. Umearen arreta	61 Amagandiko edoskitzea sustatzea	87,71	28,94
	62 Umearen azterketa	35,43	12,75
	63 Umeen asma	44,05	23,89
	64 Umeen istripuen prebentzioa	54,98	24,74
7. totala Helduaren arreta		38,03	65,95
7. Helduaren arreta	71 Sexu-praktiketako segurtasuna	22,45	8,31
	72 Asma	43,09	24,79
	73 BGBK	48,20	14,45
	74 Etxeko paziente kronikoak	38,77	6,76
	75 Bizitzaren azken fasean dauden pazienteak	0,16	11,64

	Lortutako puntuak		Lortutako portzentaia	
	2022	2023	2022	2023
Bilbo-Basurtuko ESla	333,11	303,87	44,83%	40,90%
Osakidetzako batez bestekoa	325,81	293,09	43,83%	39,45%

ESlak aldian-aldian neurtzen eta ebaluatzen du bezeroek emandako zerbitzuekiko duten gogobetetzea, gure etengabeko hobekuntzarako funtsezko informazio-iturri gisa.



Gure zerbitzuekiko gogobetetze-pertzepzioaren emaitzak eta kexak, erreklamazioak eta iradokizunak

Bezeroen inkestaren emaitzak

Itema	2022eko emaitzak	2023eko emaitzak	Osakidetzako ESlen 2023ko batez bestekoa
Jasotako arretari buruzko paziente ospitalizatuaren balorazio orokor ona	8,97	ND	8,66
Ospitaleko larrialdi-zerbitzuetan jasotako arretari buruzko balorazio orokor ona (helduak)	8,21	ND	7,80
Ospitaleko pediatriaren zerbitzuetan jasotako arretari buruzko balorazio orokor ona	8,49	ND	8,16
Osasun-zentroan jasotako arretari buruzko pazienteen balorazio orokor ona	9,04	ND	8,86*
Etxean jasotako arretari buruzko balorazio orokor ona (etxeko ospitalizazioa)	9,38	ND	9,29*

* 2022ko datuak

Oharra: Bilbo-Basurtuko ESaren 2023ko emaitzak ez dira argitaratu, ez direlako adierazgarriak (biztanleriaren laginketa ez da nahikoa) lehen mailako arretako pediatriako kontsultak, ez eta egonaldietan eta ospitaleko kontsultetan ere.

Aurreikusita dago 2024ko azken lauhilekoan lehen mailako arretako pediatriako kontsultetan, egonaldietan eta ospitaleko kontsultetan jasotako arretaren gogobetetze-inkestak egitea.

Kexak, erreklamazioak eta esker-onak

OSASAPU tresna informatikoak aukera ematen du Osakidetzako erakundeen arteko kudeaketak bideratzeko, aurkeztutako idazkiaren erantzunaren arabera.

Gauza bera gertatzen da ESlaren barruan. Pazienteak Ospitaleko PEAZean edo edozein osasun-zentrotan aurkez dezake idazkia, eta, ondoren, idazki horretan aipatzen den lantokira bideratzen da.

- Lehen mailako arretari badagokio: kudeaketa eta erantzuna osasun-zentroari dagozkio.
- Arreta espezializatuari buruzkoa bada (ospitalea nahiz anbulatorioak): kudeaketa eta erantzuna PEAZi dagozkio.

Lehen mailako arreta	2022	2023
Erreklamazioak	1.715	1.271
Kexak	72	57
Burutzeko batez besteko atzerapena (egunak)	19,86	18,46
Esker onak	109	105

Arreta espezializatua	2022	2023
Erreklamazioak	5.042	7.873
Kexak	36	13
Burutzeko batez besteko atzerapena (egunak)	11,97	13,44
Esker onak	252	251

Ezagutza zabaltzeko jarduerak

Argitaratutako artikuluak	2022	2023
Argitaratutako artikuluak guztira	243	298
Argitaratutako artikuluak, IF dutenak (ISI)	193	229
Argitaratutako artikuluak, Q1 Q2 lortu dutenak	125	169
Lehen egilea, Bilbo-Basurtuko ESikoa	68	97
Zerbitzuen arteko elkarlanean egindako artikuluak	33	49
Beste erakunde batzuekin elkarlanean egindako artikuluak	210	245

Nazioarteko eragin-faktorea (IF) aldizkari batek komunitate zientifikoan duen eragina neurtzen duen adierazlea da. Aldizkariak alderatzeko eta arlo batean duten garrantzia ebaluatzeko erabiltzen den tresna da. Urtero aldatzen da eta Journal Citation Reports-en (JCR) kontsultatzen da: Web of Science-n sartutako tresna.

Kuartila (Q) adierazle bat da, aldizkari batek bere arloko aldizkari guztien artean duen garrantzi erlatiboa ebaluatzeko balio duena. Arlo bakoitzaren barruan aldizkariaren ranking bat ezartzen da, eragin-faktorearen arabera ordenatuta.

Arlo bakoitzeko aldizkariak lau zatitan edo kuartiletan banatzen dira. Inpaktu-faktore handiena duten aldizkariak 1. kuartilean (Q1) daude, inpaktu txikiena dutenak 4. kuartilean.

Gertaera zientifikoak	2022	2023
Ekarpenak, guztira	674	566
Estatu mailako ekitaldietan egindako ekarpenak	524	454
Nazioarteko ekitaldietan egindako ekarpenak	150	112
Lehen egilea, Bilbo-Basurtuko ESikoa	457	381
Bilbo-Basurtuko ESlaren zerbitzuen arteko elkarlana	79	64
Beste erakunde batzuekin egindako elkarlana	289	225

Gainera:

- Doktorego-tesi 1 irakurri da.
- Doktore-tesi 2 zuzendu dira.

Irakaskuntza Eremua

	2022/23	2023/24
Medikuntzako ikasleak	303	298
Erizaintzako ikasleak	450	450
BAME	206	211
BAEE	17	18




Langileen Eremua

Egiturazko langileria eta aldi batekoa

Pertsonak 100%ean lanean*							
Kategoria	2022			2023			Δ 23/22 % Guztira
	Egiturazko langileria	Aldi batekoak+ ordezkoak	Guztira	Egiturazko langileria	Aldi batekoak + ordezkoak	Guztira	
Langile sanitarioak	2.428,3	2.132,5	4.560,9	2.907,1	1.680,0	4.587,1	0,6%
Asistentziako lizentziadunak	848,8	515,7	1.364,5	984,0	401,7	1.385,7	1,5%
Zuzendariorde eta Medikoa	2,7	0,0	2,7	2,4	0,0	2,4	-8,1%
Zerbitzuburuak	37,2	0,0	37,2	37,3	0,0	37,3	0,2%
Atalburuak	59,6	0,0	59,6	58,4	0,0	58,4	-1,9%
Adjunto/a (TituAdjuntuak (goi-tituludunak)	749,4	310,9	1.060,3	885,8	191,5	1.077,3	1,6%
BAME	0,0	204,8	204,8	0,0	210,2	210,2	2,7%
Teknikari sanitarioak	1.139,1	1.134,3	2.273,4	1.397,0	884,3	2.281,2	0,3%
Erizaintzako Zuzendariorde eta	1,8	0,0	1,8	2,0	0,0	2,0	10,5%
Adjuntuak	6,2	0,0	6,2	7,8	0,0	7,8	26,2%
Gainbegiraleak	89,0	0,2	89,2	89,6	0,0	89,6	0,4%
Erizainak	811,0	914,7	1.725,7	1.023,5	691,7	1.715,1	-0,6%
Emaginak	45,5	37,9	83,4	52,9	30,1	83,0	-0,5%
Fisioterapeutak	30,3	32,6	62,9	42,4	32,7	75,1	19,5%
Beste diplomadun batzuk	7,6	4,8	12,4	3,9	5,1	8,9	-28,0%
BAEE	0,0	20,4	20,4	0,0	18,6	18,6	-8,9%
Osasun-laguntzaile	440,4	482,6	922,9	526,2	394,0	920,2	-0,3%
Erizaintzako Laguntzailea	429,4	470,6	900,0	511,7	380,1	891,9	-0,9%
Farmaziako laguntzaileak	11,0	12,0	23,0	14,4	13,9	28,3	23,4%
Langile ez-sanitarioak	785,6	655,3	1.441,0	904,1	542,2	1.446,3	0,4%
Zuzendaritzako langileak	5,9	0,0	5,9	5,8	0,0	5,8	-2,5%
Zuzendaritzako kideak	5,9	0,0	5,9	5,8	0,0	5,8	-2,5%
Administrazioa	433,1	311,0	744,1	493,3	256,0	749,3	0,7%
Kudeaketako zuzendariordea	2,8	0,0	2,8	2,5	0,0	2,5	-8,8%
Goi- eta erdi-mailako tituludunak	48,9	17,0	65,9	54,6	11,3	65,9	0,1%
Administrariak eta administrari laguntzaileak	381,5	294,0	675,4	436,2	244,7	680,8	0,8%
Tek. profesionalak eta ofizialak	58,6	31,5	90,1	64,9	31,7	96,6	7,2%
Tek. profesionalak eta ofizialak	58,6	31,5	90,1	64,9	31,7	96,6	7,2%
Zeladoreak eta operarioak	288,0	312,9	600,9	340,1	254,4	594,6	-1,0%
Zeladoreak	188,7	196,0	384,6	222,5	158,0	380,5	-1,1%
Operarioak	99,3	116,9	216,2	117,7	96,4	214,1	-1,0%
Guztizko orokorra	3.214	2.788	6.002	3.811	2.222	6.033	0,5%

*Pertsona kopurua, kontuan hartuta lan egindako egunak eta okupazioaren %. Urte osoa hartzen da kontuan.

ESko profesionalen adin-piramidea



Egiturazko plantillaren adinaren araberako banaketa (finkoak+bitartekoak):

Gizonezkoen batez besteko adina	Emakumezkoen batez besteko adina	Batez besteko adina, guztira
50,53	49,96	50,08

Persona kopurua, urteko azken egunean, lan egindako denbora eta lanaren ehunekoa kontuan hartu barik.

Langile mota	2022				2023			
	G	E	Guztira	%	G	E	Guztira	%
